

DANTZA MODERNOA: dantza mota hau, beste guztien moduan, gure gorputzaren mugimentuak eta barne emozioak azaltzeko modu artistiko bat da. Pausu ezberdinak bateratuz edo konbinatuz koreografia bat lortu dezakegu. Bestalde, umeen irudimena eta sormena bultzatzeko modu bat da.

Jarduera honetan hainbat gauza landuko ditugu:

- Irudimena eta sormena
- Koordinazioa
- Malgutasuna
- Kontzentrazioa eta memoria
- Ikasleen arteko adiskidetasuna eta errespetua
- Lantaldean lan egiten ikasi
- Erritmoa
- Musikaren ulermena
- Norberarenganako konfiantza

LEHENENGO TRIMESTREA:

Lehenengo trimestre honetan, batez ere, ikasle eta irakaslearen arteko harremana landuko dugu eta ikasleen arteko lotura eta errespetua. Bestalde, ikasleak dantzarekin lehenengo kontaktua biziko dute. Beroketa batekin hasiko ditugu klaseak eta luzapen batzuekin jarraituko ditugu, giharrak martxan jartzeko. Ikasleak bero eta kontzentratuta daudenean, lehenengo pausuak eta koreografiak ikasten hasiko dira. Lehenengo etapa honetan koreografiak zailtasun gutxikoak izango dira.

BIGARREN TRIMESTREA:

Trimestre honetan, zailtasun gehiagoko pausuak eta koreografiak ikasten zentratuko gara. Era berean, betiko beroketekin eta luzapenekin jarraituko dugu modu honetan gure malgutasuna hobetuz joango da eta honekin batera saltu, pausu eta gauza berriak ikasteko aukera izango dugu. Gainera egun batzuetan gauza teknikoagoak landuko ditugu

HIRUGARREN TRIMESTREA

Azkenengo trimestre honetan, gehienbat kurso amaieran egingo dugun emanaldiko koreografiak lantzen arituko gara. Txarto dauden gauzak zuzenduko ditugu eta edozein zalantza argituko dugu. Eta amaitzeko dana bukatuta utziko dugu kurso amaierako emanaldirako.